

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2018ko otsailaren 15ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Hondakinak biltzeko zerbitzua:** Zerbitzuaren alderdi nagusien berri eman da: Dendak erakartzea papera eta kartoia atez ate biltzeko, gune txiki garbietan utzitako hondakinen kudeatzaileak, Arrigorriagari eskerrak ematea 14 gune txiki garbiak jartzeko eta instalatzeko emandako laguntzagatik, hiriko hondakinak tratatzeko zerbitzuari dagokion BFaren prezio publiko berria, Eko Gasteizek Justizia Auzitegi Gorenari jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal agertzea erabaki da.
- **Edukiontzia hornitzeko lehiaketa:** Udalerrri bakoitzean zuzenean esleitzeko prozedura aukeratu da, aurreikusitako kopurua txikia baita, udalerrri batean izan ezik. Eskualde Bulegoak aurrekontuak eskatuko ditu.
- **Frakzio organikorako diru-laguntza:** 2018ko deialdiari begira, aurreko urteetako antzeko eskaera baten proposamena baliozkotu da, berrikuntza batekin: udal batek birringailua eskatu du, eskualdeko udalerrri guztietan erabiltzeko. Udal brigaden bitartez kudeatuko da birringailuaren trukea eta mantentzea.
- **2018ko Kudeaketa Plana: Azken bertsioko egokitzapenak:** Azken egokitzapenei buruzko azalpenak eman dira. Hondakinen hileko fakturak martxotik aurrera bidaliko dira aurreko hilaren azkenetan. Ordainketen aldizkako jarraipena egingo da.
- **2018ko kontratazio plana:** Birpasatu eta ekarpenak eta proposamenak jaso dira.
- **Hitzarmena Galdakaoko Udalarekin:** Ikus-onespena eman zaio aurtengo hitzarmena bukatzeari.
- **Batzordearen bileren egutegia:** Ikus-onespena eman zaio uztaile arte: hileko hirugarren ostegun guztietan. Hau da: martxoaren 15; apirilaren 19; maiatzaren 17; ekainaren 21; uztailearen 19. Ordutegia: 9etatik 11ak arte.
- **URArekin elkarlanean aritzeko urteko plangintza: jarduteko proposamenak:** Udalerrrietatik eta eskualdetik 2018an jarduketak egiteko proposamenen eskaera helarazi da.
- **Zilarrezko, Urrezko eta Platinozko Erratzen Lehiaketa:** Eskaera aurkeztea erabaki da, baita martxoaren 15eko hurrengo bileran parte hartzeko erabakia hartzea ere.
- **Argibideak:** Erosketa eta kontratazio publiko berdeari buruzko jardunaldia. Ingurumeneko kontratazio arduratsuaren norainokoa EAEko sektore publikoan. Aukerak: ILPeES laguntzak.
- **Bestelakoak:** Tokiko garbiketa zerbitzuaren kontratua; Totemak.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** martxoaren 15, osteguna, 9:00etatik a 11:00ak arte.